

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

61/2021 Foru Agindua, otsailaren 23koa. Arabako Lurralde Historikoan 2020-2021 denboraldirako ehiza jardueraren araudi espezifikoak ezartzen duen uztailaren 13ko 224/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 4.2 artikulua aldatzea

Uztailaren 13ko 224/2020 Foru Aginduaren bidez, Nekazaritza Saileko diputatuak onespena eman zien Arabako Lurralde Historikoko ehizaren 2020-2021 denboraldirako berariazko arauak.

Bada, basurdea uxaldiaz baliatuta harrapatzeko baimendutako aldiari dagokionez, horren azken eguna otsailaren 28a izango zela ezarri zen. Hala ere, alarma egoeraren ondoriozko mugikortasun murrizketek eta urtarrilaren zati handi batean izan den eguraldiak eragotzi egin dute bost astez uxaldi bidezko ehizan jardutea.

Arabako bi ehiztari elkarteek proposatzen den luzapena eskatu dute. Era berean, Nekazaritza Ministerioak eskatu du basurde ehiza areagotu dadila, espezie horren gainpopulazioa geldiarazten saiatzeko.

Horregatik, kontuan izanik espezie horrek nekazaritzan egiten dituen kalte gero eta handiagoi eta sortzen dituen osasun arriskuei aurrea hartzeko beharra, eta espeziearen populazio hazkundearen ondorioz zirkulazio istripuak gertatzeko arriskua, agerian jarri da 2021eko martxoaren 31ra arte luzatu behar dela animalia hori uxaldian ehizatze baimendutako aldia.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Uztailaren 13ko 224/20 Foru Aginduaren I. eranskinaren 4.2 artikulua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

“Basurdea (*Sus scrofa*): 2020ko irailaren 5etik 2021eko martxoaren 31ra arte, biak barne” 2020ko irailaren 5etik urriaren 12ra bitartean, eta otsailean eta martxoan, uxaldian bakarrik ehiza daiteke basurdea.

Bigarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 23a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE